

Berbalapikoa

- Abaroa** = Zuhaizpeko babesgunea, ganadua gerizpetan egoteko lekua
- Abazuea** = Hotzaren ondorioz lei zati biribiletan jausten dan euria
- Abizari** = Oiloei ipinten jaken guzurretako arrautzea, egiazko bat errun deien
- Adabaki** = Erropetako zuloak tapetako erabilten dan telazko txatala
- Adur** = Ahotik behera darion txua, ahoko bitsa
- Afruntu** = Eguraldi eskasa, euria haizearekin batera, gogor, datorrenean
- Ahurkadea** = Bi eskuetako ahurrekin egindako ontzi-modukoan sartzen den gari, indaba... kopurua
- Akabua** = Denpora eta espazioan zeozeren atzeneko mugea
- Akulu** = Makila luze eta buru-eztenduna, gurdi-abereei eragiteko erabilten dana
- Alogera** = Beharra egitearren jasotzen dan diru-kopurua, industria zaharretan erabilia
- Altzagarri** = Orea, esaterako ogiarena, altzetako edo harrotzeko erabilten dan gaia
- Altzaldi** = Norbaitek zeozer jasotzen dauan aldi bakoitza
- Amaibako** = Amaierarik ez daukana
- Amandrea** = Norberaren amaren edo aitaren ama
- Amatau** = Argitzeari edo erretzeari itxi; argia edo sua kendu
- Amesetea** = Lotan edo izarrik izaten diran irudimen edo bizipenak
- Andra-gizonak** = Alkarrekin ezkontutako senarra eta emaztea
- Andragai** = Bikoteari ezkontzeko berba deutson emakumea
- Anega** = Zekaleen pisua zehazteko neurria
- Aratuste** = Garizuma aurretik egiten dan ospakizuna
- Ardiak mutildu** = Ardiei lanea labur-labur moztu
- Armozu** = Goizean hartzen dan otordua, eguneko lehena
- Arrakadea** = Belarrietan ipinten dan apaingarrietako bakotxa
- Arrasti** = Eguerditik ilunabarrera doan denpora-tartea
- Artxo** = Ardiaren kumea, oraindik amaren esnea hartzen dauana
- Atun** = Marmitakoa egiteko erabiltzen dogun arraina
- Atxur** = Lurra zulotu, landu eta jorratzeko lanabesa
- Atzamorru** = Atzazalekin narruazala igurtzeko gogoa
- Baragarri** = Persona edo gauza arraroa, bitxia
- Barakil** = Maskorrik ez daukan molusku gastropodoa, barea baino txikiagoa
- Behar egin** = Onuragarri bat lortzeko ahalegina eskatzen dauan jarduna egin
- Beharlagun** = Berarekin behar egiten dauan persona
- Berakatz** = Jatekoari bizitasuna emoteko erabilten dan ortuaria
- Berbakerea** = Berba egiteko erea
- Berbots** = Bateratsu berba egitean entzuten dan ahopeko berba-zarata
- Berenberegi** = Lehenagotik halan pentsauta egiten dana, apropos egiten dana
- Bernak** = Belaunaren eta oinaren bitarteko soin-atala

Berbalapikoa

- Bigantxea** = Behi gaztea, kumeak ekartzeko moduan dagoena
- Bihurri** = Gaiztakeriak edo bihurrikeriak egiten dituana
- Bildurbako** = Inoiz bildurrik ez daukana
- Bits** = Esnearen goialdean egiten dan geruza mamitsua
- Bizien** = Gorputzeko organoetan zelulak modu desorekatuz haztean sortzen dan gaitza
- Botika** = Gaitzak edo izurriteak sendatzeko sendagaiari esaten jako
- Burdinola** = Ferreria, burdina lantzeko lantegia
- Burugogor** = Eretxiz nekez aldatuko dana
- Burutxea** = Artaburuari garauak kendu ostean gelditzen jakona
- Buztanikarea** = Buztan luze, dardarti eta papar grisdu txoria
- Buztarri** = Idi edo behi pare batuz kokotaren gainean jartzen jakon egurrezko pieza sendoa.
- Deadar** = Baten bati deitzeko ahotsaz eginiko hots zorrotza
- Doarik** = Ezer ordaindu barik
- Dolare** = Artagaraua biltzeko lekua
- Ederto** = Ekintza bat edo egoera bat deskribatzeko erabiltzen dogun emozioz kargaturiko berba
- Egosari** = Txarrien jatekoa: zahi, patata, kalabaza eta uraz osatutako nahastea
- Eguna argitu** = Egunaren lehenengo orduan, eguzkia urteten den unea
- Egundo** = Sekula be ez adierazteko erabiltzen dogun berba
- Eho** = Garaua edo alea birrindu
- Elai** = Udabarrian etxeko teilatupeetan edo baserrietako karrajuetan buztinezko habia egiten duen txori azkar eta intsektuzalea
- Epertargi** = Eperdian gauzez ikusteko moduko argitasun berezia daukan intsektua
- Eperterre** = Pertsona urduria, geldi egon ezinekoa
- Erantzi** = Arropak edo objekturen bat kendu
- Erlastar** = Hara hona dabiltzan erle handia
- Erne** = Landarea lurretik hazi
- Erralde** = Abelgorriak pisatzeko erabiltzen den 5 kg-ko neurria
- Erreskadea** = Norabide berean jarrita dagozan personen edo gauzen segida
- Eskeko** = Eskean bildutakotik bizi dan persona
- Eskusau** = Txiza eta kaka egiteko lekua
- Eskutur** = Beso eta eskuaren arteko artikulazinoa
- Esnetan** = Lasai eta ardura barik bizi denari esaten zaio
- Et** = Ezezkoa adierazteko erabilten da
- Etzilimo** = Hiru egun barruko eguna adierazteko erabiltzen da
- Ezkaratz** = Jatekoa prestetako egokituta dagoan etxeko gela
- Firu** = Josteko edo ehunak egiteko erabilten dan ardilanazko, linozko... materia

Berbalapikoa

Fu = Ume hizkeran suari esaten jako

Galarazo = Zeozer egiten itxi ez, legez edo aginduz

Gan = Zerbaitetan, bereziki mendi baten, zatirik altuena, gailurra

Garagarril = Urteko zazpigarren hila

Garo = Gau eta goizalde hotzetan, hezetasunagaitik lurrean, landaretan... eratzen diran ur-tantak

Gaua egin = Eguzkia gorde eta zerua ilundu

Girristuka = Oihu zorrotz eta bizia egitearen ekintzari esaten jako

Gobernau = Persona eta animalien kargu izan: elikatu, garbitu, zaindu...

Goibel = Gauzak ez doazenean guk nahi dugun moduan, pertsonok izan dezakegun egoera emozionala

Gosekilik = Gose izan, jateko premia izan

Guardasola = Euritik babesteko erabilten dogun tresna

Gurpide = Gurdia ibiltzeko bidea

Hagin = Ahoaren barruan janaria mamurtzeko erabilten doguzan hazur bereziak

Hats = Usain txar-txarra

Hauspo = Haizea emoteko tresna, behekosua bizkortzeko erabilten da, besteak beste

Hodei = Laino trumoiduna

Hur = Distantzia laburrera dagoana

Igarri = Ustearen edo intuizinoaren bidez zeozertaz konturatu

Ihartu = Landareari bere hezetasuna eta berdetasuna joan

Iko = Azal berdea, morea edo baltzizkadun fruitua; mamia gorria eta hazi txikiz beterik daukana

Imin = Zekaleen pisua zehazteko 6 kg-ko neurria

Indabak = Lapikoan egosita asko estimetan dan jatekoa. Zuria, gorria edo baltza izan leitekez

Indarbako = Indarrik ez daukana

Inizitu = Ekaitza dagoenean zerua zeharkatzen duen argia

Inurri = Oso langilea dan intsektu txiki baltza edo gorria

Ipizki = Labea garbitzeko erabilten dan irakaz eginiko ginarrea

Iretargi = Lurraren inguruan biraka dabilen satelite naturala

Ituxur = Ura tantaka erortzen dan sabai edo teilatuaren gunea; tantaka erortzen dan ur hori bera

Izar-loka = Airean hara eta hona dabilen gorputz solido dirdiratsua

Izartu = Lo dagoana bere egoeratik atera

Izetu = Amataurik dagoana biztu

Jagon = Gaixorik egonez gero egin behar duzuna

Jaramon egin = Arreta jarri edo nonork esana kontuan izan

Jatun = Denetarik jaten duena

Berbalapikoa

Jaubetu = Zeozeren barri euki; zeozertaz ohartu

Jausi = Beherantz edo lurrera etorri, oreka edo euskarria galdua

Jesarri = Atsedena hartzeko eperdi-maminak aulki edo antzeko zeozeren gainean ipini

Joskilea = Jostorratza eta firua hartuta, oihalekin edo antzeko materialekin behar egiten dauana

Kalamidadea = Norberarengan samina edo sufrimendua eragiten dauan zorigaiztoko gertaera

Karrederan = Oinez eta jauziak emonez abiadura handian ibili

Katakuxea = Lepahoriaren familiako ugaztun haragijalea, paparrean orban zuria dauana

Katuka = Oinez ibili aurretik umeak eskuak eta belauak lurrean jarrita ibiltzeari esaten jako

Kilimak = Azalean igurtzen digutenean sortzen zaigun sentipen barregarria

Kintal = Pisua neurtzeko 50 kg-ko neurria

Kirikolatz = Gorputza arantzaz beterik daukan ugaztun txikia

Kobazulo = Hatxetan berez egoten dan zulounea

Koipelustre = Nekarazoten zaituen pertsonari esaten jako

Koitadu = Bere zorigaitzagaitik besteengan lastima eragiten dauana

Koiu = Harrapau, eskura ez dagoana eskuakaz hartu

Koko = Umeen hizkeran horrela esaten jako gutixi beltzari

Komeri = Gertaera bitxi edo nahasia, baina barregarria edo larritasun bakoa

Kortea = Baserri barruan abereak euki edo gordeteko lekua

Kuartilu = Litro erdiko neurria

Kurloi = Asfalto eta porlanazko ingurura ondo baino hobeto egokitu den txori txikerra

Kurubio = Erlearen antzeko intsektua, gehienetan baltzak eta batzuetan marra horiekin

Labasu = Labea berotzeko egiten dan sua

Lainabeherea = Lurrrazalean sortzen dan laino zarratua

Lanka = Ganaduak erasteko erabilten dan aulkitxua

Lantzar = Landa laua eta belartsua

Laprast egin = Leku labanean oreka galdu

Larreko = Neurria gainditzten denean esaten da

Lastategi = Baserrian goiko pisuan bedar sikua gordeteko lekua

Lei = Izozturiko ura

Lez = Bardintasuna adierazoten dauan berbea da

Libra = Pisua neurtzeko kilo erdiko neurria

Lohi = Garbi ez dagoana

Loti = Lo asko egiten duenari esaten jako

Lotsor = Erraz eta arin lotsatzen dana

Luki = Kanidoen familiako animalia, mustur luze, belarri tente eta buztan luze uletsuduna

Lupetz = Lurra eta ura nahastuta sortzen dan lur bustia

Berbalapikoa

- Madari** = Azal berdea, beilegia edo arrea eta barru zuria dauan fruitua
- Mailuki** = Gorri koloreko fruitu gozoa eta lurrintsua
- Mamarro** = Lurpeko edozein har edo intsektuari esaten jako
- Mantarrak** = Ume jaiobarrirei garritik behera ipinten jaken ehuna, txizak eta kakak ez urteteko
- Mantzanilea** = Basalandara usainduna, lora beilegi eta orri zuriduna
- Marinerea** = Andrazkoen jantzia, blusaren antzekoa
- Martitzen** = Astearen bigarren eguna
- Martxanderea** = Soloko jeneroa azokan saltzen dauan andrea
- Memelo** = Leloa edo adimen gitxikoa dana
- Metxotea** = Sua egiteko trapu eta koipeagaz eginiko kandela antzekoa.
- Milekotea** = Udako fruta, azal uletsua, beilegi-laranja eta sano gozoa
- Mixar** = Basoetako animalia txikia; gehienetan ilegorria, buztan luzea eta lodia daukana
- Mizkin** = Jateko orduan kopla asko duen umeari esaten jako
- Mortxokoladea** = Esku batean euki daiteken edo esku bakarrez hartu ahal dan kopurua
- Mozolo** = Umeen hizkera lasai eta baketan dagoen umeari esaten jako
- Murrusea** = Behi edo antzekoen oihu ozena
- Narru-hutsik** = Narrugorrian, erroa barik
- Negar-anpuluak** = Begietatik jausten den anpuluari, tangadeari esaten jako
- Negarti** = Negar asko egiten duenari esaten jako
- Odoloste** = Txarri-odol egosiari gehigarri batzuk nahasturik egiten dan hestebetea
- Ogigaztai** = Mustela nivalis, gorputz txiker luzanga duen haragijale txikia.
- Oinaztu** = Ekaitzetan, lerro bihurtikatu eta adarkatu bat eratzen dauan argialdi bizi eta laburra
- Okaran** = Azala leun, mamina gozo eta kolore zuria edo gorrixkea daukan fruitu biribila
- Okil** = Egurra zultzeko moko gogorra daukan txoria
- Okotz** = Gizakien arpegian, ahoaren azpiko aldea
- Olgau** = Jolasaren bidez atsegin hartu, jolasean ibili
- Olgetea** = Atsegin hartzeko egiten dan jarduna edo jokoa
- Orbel** = Orri sikuen multzoa
- Orri** = Landara eta arbolek fotosintesia egiteko daukiezan organoak
- Ortozik** = Oinetakoak jantzi barik
- Ortu** = Letxugak, tomateak eta piperrak hazten den lur zatia
- Ortuari** = Ortuan landatzen dan edozein landara mota
- Ortusantu** = Hildakoak lurperatzeko leku sagradua
- Ostarku** = Zeruan, euria egitean edo egin ostean, eguzkiaren aurrez aurreko aldean agertzen dan zazpi koloreko uztai argitsua
- Ostendu** = Nonor edo zeozer ikusten ez dan tokian jarri
- Osterabe** = Beste behin, atzera be

Berbalapikoa

- Otordu** = Jateko ordua edo aldia
- Papa** = Ume hizkeran ogia adierazteko erabiltzen da
- Partere** = Ama bati umea egiteko orduan laguntzen deuteson andrea
- Pentzura** = Beste baten kontura bizi, egon edo itxi
- Pitikin** = Mahatsa zapaldukeran urteten dan lehenengo edabea
- Porasuz** = Ekinarez ekinez, urteen edo zeozeren indarrez... adierazten dau
- Potxingo** = Euri-pozua, urez beteriko lur sakonune txikia
- Pozarren** = Kabidu ezinik dagoela adierazteko erabiltzen da
- Purrut** = Puzkerra adierazteko erabilten den onomatopeia
- Putxurti** = Atoan haserretzen den umea
- Sakatu** = Botoi bat zapaldu edo indarrez zerbait bultzatzeko ekintza
- Sargori** = Bero larri eta hezea
- Sarteneko** = Zartaginean frijitutako generoa, gehienetan txerrikia izaten da
- Saskil** = Itxura zaindu bakoa edo zikina daukana
- Sats** = Animalien korotza, soloetan ongarrri natural lez erabilten dana
- Sendi** = Aita-amak eta seme-alabak osatzen daben familia unidatea
- Sikate** = Luzaroan euririk eza
- Sorki** = Sukalde lanetarako erabilten den ohial zatia
- Sugelandara** = Hormetan edo harri artean bizi dan narrasti txikia
- Surrestu** = Hotzak eragiten dauan arnasbideetako eritasuna, moko-jario neurritz gainekoa dakarrena
- Tangadea** = Forma biribila hartzen dauan edozein likidotako partikula
- Tantai** = Sekula moztu barik gorantza hazi dan arbolea
- Tarraz** = Lurretik altzau barik arrastaka joatearen ekintza
- Toto** = Umeen hizkeran txakurra adierazteko erabiltzen den berbea
- Trokea** = Lurrazaleko sakonunea edo beherakada
- Txantxur** = Umeen esne-hagina adierazteko modua
- Txata** = Ume hizkeran sudurra adierazteko erabiltzen da
- Txiker** = Ohiko neurrira edo tamainura heltzen ez dana
- Txirrintolea** = Biraka eta oreka mantenduz erabilten zan metalezko uztai biribila
- Txuzo** = Soloetan txoriak ikaratzeko ipinten dan lastozko panpina
- Udagoien** = Uda eta neguaren artean dagoan urte-sasoia
- Ugaraxo** = Ornodun urlehortar buztan bakoa, azala biguna eta leuna, eta atzeko hankak luzeak dituana
- Ugazabea** = Zeozeren jaube dana; etxe, lantegi edo antzekoen buru dana
- Ugertu** = Metal batzuen oxidazioagaitik lohia agertu
- Untze** = Luzera zehaztuko neurria, 28 metro
- Ura egin** = Landara bat edo lur zati bat urez hornidu
- Uriola** = Ibai edo erreketako urak gainezka indar handiz egitea

Berbalapikoa

Urrin = Erreferentziazko puntu biren arteko distantzia luzea dagoanean

Urtegun = Jaiotegunaren ospakizunaren eguna

Usadio = Herri edo gizarte baten urteetan egin izan dan ohiko jarduera

Zaratots = Zarata edo iskanbila handia

Zelan = "Zein modutan" edo "zein eratan" esan gura dau

Zeletin = Zekaleen pisua zehazteko neurria, 12,5 kg

Zemendi = Urtearen hamakagarren hilea, abenduaren aurre-aurrean dagoana

Zezeil = Urtearen bigarren hilea

Zila = Sabelaren erdialdeko orban biribila, zulo txiki bat eratzen dauana

Zoli = Erraz eta bizkor mobitzen dana

